

Enpresa Txikientzako  
Praktika Errazak


3

**Zure Enpresako  
Aurkezpen Eraginkorrak  
Praktiketako Ikasleak  
Enpresan Hasi**




GEHIAGO IRAKURRI NAHI?  
[www.learntowork.eu](http://www.learntowork.eu)

 learn to work



3

SARRERA



4

NOLA GEHI DEZAKE BALIO  
AURKEZPEN ERAGINKOR BATEK?



5

ARAZOAK ETA  
ERAGOZPENAK GAINDITU



6

NOLA HASI PRAKTIKETAKO  
IKASLEAK ENPRESAN  
ERAGINKORKI




8

PRAKTIKA ERAGINKORRAK



9

BEHARRIZAN BEREZIEN  
AUKERA AZTERTU



Enpresan hasialdi on baten balio erantsia da pertsona guztiak elkarrekin eroso sentitzea, lanean eta produzitzen lehen unetik hasteko.

Garrantzizkoa da enpresak praktiketako ikasleekin harreman informatuak eta konfiantzazkoak lotzea, pertsona guztiak ohar daitezen gainerakoekin nola jokatu eta zer espero. Bestalde, era horretan sortutako aurreikuspenak praktika-aldiak iraun bitartean efizienteki bete ahal izatea berrmatuko dugu.

Aurkezpena egiteko modua aldatu egiten da enpresatik enpresara haren kultura eta industriaren arabera, baita praktiken nolakotasunaren arabera ere. Koaderno honek eraginkorki praktiketara enpresan hasteko moduaren diseinua azaltzen du.

## NOLA GEHI DEZAKE BALIO AURKEZPEN ERAGINKOR BATEK?

4



**Lehendabiziko irudipenek axola dute.** Enpresa batean behar bezala aurkeztutako praktiketako ikasleek joera dute enpresaren misioa, ikuspena eta balioak gogotsu barneratzeko, eta horrek onura gehigarriak ematen ditu, tartean direla ondorengoak:


Praktiketako ikasle gehienak enplegatzaile berarekin jarraitzen dute enpleguan praktikak amaitutakoan, eta horietako askok lanean gora egiten dute hura amaitu eta hurrengo 12 hilabeteetan.

Praktiketako ikasle gogotsuek enpresaren irudia hobetzen dute enpresako lankideen eta bezeroen artean.

Praktiketako ikasle motibatuek gehiago atxikitzen dituzte langileak enpresan, eta pertsonen konfiantza hobetzen.

## ARAZOAK ETA ERAGOZPENAK GAINDITU

5



**“Praktiketako ikasleek helburu formaletarako bakarrik behar dituzte praktikak, eta ez litzaieke benetako zereginak esleitu behar”**

Praktika ‘hutsalak’, non ikasleei adibidez dokumentuen kopiatze- eta eskaneatze-lanak ematen zaizkien, saihestu beharko liriateke, hain zuzen. Horrelako zereginak alferrik galtzen dituzte praktiken funtsezko onurak, batez ere ezagutzaren transferentzia eta praktiketako ikasleek enpresarentzat balio potentziala sortzea, baita kontratazio hobea ere, besteak beste.

**“Praktiketako ikasleek ez dute eskarmenturik pisuzko zereginetan aritzeko”**

Ikasleak ez liriateke gaztetzat eta ezjakintzat hartu behar. Aldiz, motibazioz eta ikasteko gogoz beteta datoz, eta horrek ikasketara eta lan-jardun egokira bultzatzen ditu. Begi bistakoa iruditu arren, askotan oharkabean doakigu guk praktiketako ikasleak zenbat eta hobe prestatu eta trebatu, hobe arituko direla ere beren zereginetan, enpresako eguneroko funtzionamenduko zati direnak, noski.



Praktiketako ikasleak enpresan hasteko prozedurak diseinatzean, ETEek ondorengo bidea hartu beharko lukete:



### Aurkeztu zure enpresa praktiketako ikasleari.

Esleitu behar beste denbora praktiketako ikasleei ongi etorria egiteko lehendabiziko egunean. Eman beharrezko materialak praktiketako ikasleari zure enpresari buruz, baita haren iragan, orainaldi eta etorkizuneko produktu- edo/eta zerbitzu-zorroari eta zure enpresaren estrategiari buruz.



### Hornitu praktiketako ikasleari beharrezko datu praktikoak.

Hor sar daitezke ikuspegi orokor bat eta azpiegituraren bisita gidatu bat, enpresaren ordutegiak eta etxeko arauak, segurtasunari eta beharrezko babes-ekipamenduari buruzko edozein jarraibide garrantzitsu, helbide elektronikoko pertsonalizatu bat, baita lanean hasteko behar sarbide-kodeak ere, etab.



### Aurkeztu praktiketako ikaslea eta haren praktika-aldia zure langileei, eta alderantziz.

Praktiketako ikasleari enpresako instalazioetan barrena bisita gidatua laguntzen diozunean, hartu aukera hura eta haren praktika-aldia enpresako pertsona guztiei aurkezteko. Era horretan, aukera ematen zaie hasieratik elkar ezagutzeko, elkarren arteko lankidetzak baterako ateak irekiz.

Praktiketako ikasleak enpresako ezin besteko pertsona guztiak eta haien eginkizunak ezagutu behar ditu; era horretan, ingurunean nola moldatu jakin ahal izango du, baita norengana jo ere dena delako gai aritzeko. Bestalde, pertsonak ideia argi bat izan beharko lukete praktika-aldiari buruz; era horretan, jakin dezakete praktiketako ikaslearen zein emaitza espero, eta harekin nolako lankidetzak eta tutoretza mota eduki erabaki. Hartara, behar ez diren komunikazioko eta zereginen jardunean izandako atzerapenak saihestuko ditugu, eta alde batek ere ez ditu praktika-aldiko emaitzak kolokan jarriko.



### Antolatu esperientzia integrala bermatuko duen laneratze-plan bat.

Pentsatu plan formal bat praktiketako ikasleak jakin beharreko guztia biltzen duena: norekin izen beharko lukeen tratua, baita zein enpresa-atal bisitatu beharko lituzkeen ere zure enpresa ulertzeko. Diseinatu jardura horietarako kronograma bat eta partekatu informazio hori praktiketako ikasleekin tratua izango duten pertsonekin.



**Eman praktiketako ikasleari enpresaren barruko kultura ezagutzeko eta bertan integratzeko aukera.**

Ikaslea heziketa akademiko nabarmenarekin helduko da segur aski, baina ez da soberan gogoraraztea beharbada lan-espereziarik ez duela izan aurretik, eta lan-mundua guztiz berria izango zaiola hari kasu honetan; ondorioz, lan-ingurunera eta zuen barne-kulturara moldatzen joateko denbora bat beharko du. Erakunde bakoitzak bere barne-kultura du eta, beraz, oso garrantzizkoa da hura praktiketako ikasleari transmititzea. Zuen kultura-testuingurua lehenagoa ulertu eta aiseago gertatuko da haren integrazioa.

**Sartu praktiketako ikaslea enpresaren gizarte-bizitzan.**

Gizarte-bizitza kafe-makinako berriketa dela, edo asteburuko lanaldi osteko zerbeza batzuk direla, gonbidatu ikaslea horietara ongi etorria dela senti dezan. Animatu praktiketako ikaslea "zatoz eta ni ezagutu" motako ekitaldixoa antolatzen.



Probatu eta balioztatu ikaslearekin hura praktiketara hasi aurretik prestatu duzun edozein azpiegituraren egokitzapena (instalazioak, ekipamendua, etab.), eta egokitu haren beharretara haren iradokizunen arabera.

Beharizan bereziak dituzten pertsona guztiek alde seguruan sentitu beharko lirateke ETEan lan egitean eta, beraz, tutorea ez ezik, gainerako enplegatuak jabetu beharko lirateke praktiketako ikasleak nolako beharizanak dituen, eta harekin elkarrekintzan lasaitasunez aritu.

Xehetasun gehiago hemen:  
<https://learntowork.eu/special-needs>.





## EGILEAK

Alicia Miklavcic, Anthony Camilleri,  
Dejan Blagojevic, Gilberto Santos,  
Henrika Varniene, Janez Damjan,  
Marko Grdosic, Martin Edmondson,  
Michael Bobik, Romana Nováčková,  
Sandra Feliciano

## EDITOREAK

Sandra Feliciano, Sanja Brus

## DISEINUA

Tara Drev

## COPYRIGHT

(C) 2018, Saps

## SAPS PARTZUERGOA

European Association of Institutions in Higher Education  
Knowledge Innovation Centre  
Association of Slovene Higher Vocational Colleges  
Czech Association of Schools of Professional Higher Education  
Association des Directeurs d'IUT  
Portuguese Council of Polytechnics  
West of Scotland Colleges' Partnership  
Conference of Academies for Applied Studies  
Rector's Conference of Lithuanian University Colleges  
Association of Austrian Universities of Applied Sciences

EURASHE	BE
KIC	MT
SKUPNOST VSS	SI
CASPHE	CZ
ADIUT	FR
CCISP	PT
WoSCoP	UK
KASSS	RS
LKDK	LT
FHK	AS

## SAIL HONETAKO BESTE KOADERNO BATZUK

- 1. **Koaderno:** Ekin Lanari: Praktiketako Plan bat Antolatu eta Ezarri
- 2. **Koaderno:** Enpresak Parte Hartzearen Aldeko Arrazoi Guztiak: Praktiketako Programa Errentagarrien Diseinua
- 4. **Koaderno:** Praktiketako Ikasleentzako Laguntza Laneko Praktiketarako: Tutoretza Eraginkorra



GEHIAGO IRAKURRI NAHI?  
[www.learn2work.eu](http://www.learn2work.eu)

 learn to work

“Praktikak maila guztietan egiten dira, izan artisau, teknika edo goi-mailakoa, eta beraz, sektoreko askotariko gaitasun eta beharrianetara egokitu daitezke”.

Proiektu honek Europako Batzordearen babesa du. Argitalpen honek bere egileen ikuspegia bakarrik islatzen du, eta Batzordea ezin da hartu hemen bildutako informazioaz egiten den edozein erabileraren erantzuleztat. Idazlan honek Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin lizentzia du.



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union

